"Ez dugu ikusten ikusten duguna, baizik eta garena!"

Ez dut esaldi hau, nire bizitza osoko momentu batean ere ahaztu. Nire burmuin eta bihotzean egon da beti. Momentu honetan bertan ere badago.

Esperientzia onak, txarrak, hunkigarriak, beldurgarriak,... denetarik ekarri dit esaldi honek bidaltzen duen mezua ulertzen saiatzeak.

Nire aitak hilzorian zegoela esan zidan esaldia da. Hasieran, ez nuen ulertu eta ez nion garrantzi handirik eman, baina buruan bueltaka gelditu zitzaidan esaldia, eta goiz batean haren esanahia jakin barik hilko ez nintzela erabaki nuen.

Goiz hartan bertan, nire aitarena izandako gelara abiatu nintzen, eta ohe ondoan zuen mahaitxoko giltzaz itxitako kaxa zabaldu nahi izan nuen, bertan esaldia ulertzeko idearen bat aurkitzeko esperantzaz.

Giltza, espero izan nuen bezala, kaxa azpian zegoen, eta kontu handiz, kaxa zabaldu nuen. Hura bai hura zirrara kaxa zabaltzen nengoela sentitzen nuena, baina zabaltzean, ezin izan nuen sinetsi! Bere bizitza osoan sekretuan eta inoren aurrean zabaldu gabe mantendu zuen kaxa, eta barruan, paper zatiak eta euskal lurralde ezberdinetako toki ezezagunen argazkiak soilik zeuden! Zer nolako desilusioa! Papertxoak irakurtzeari ekin nion orduan. Bakoitzak zenbaki bat zuen, 1-etik 5-erakoa.

Ohikoa den bezala, 1.etik hasi nintzen irakurtzen.

Hau zioen:

"Inolako kontzeptutan ~~ez~~ ezazu papertxo bat aurrekoa baino lehen irakurri."

Izugarri! Niretzat idatzirik zegoela ematen zuen! Honela jarraitzen zuen:

"Papertxo hauek, nire bizitza osoan zehar jarraituriko printzipioa ulertzen lagunduko dizute: Ez dugu ikusten ikusten duguna, baizik eta gorena. Eta argazkiak, esaldia ulertzeko grina baduzu, horretarako bidean bisitatu beharko dituzun lekuak dira."

Orduan, egin nuen hurrengo gauza argazkiak begiratzea izan zen. Omako basoko, Guggenheimeko, Gernikako arboleko eta Deustoko unibertsitateko argazkiak zeuden.

Bigarren, hirugarren eta laugarren papertxoak irakurri nituen, bata bestearen atzetik.

Haietan jarraitu beharreko pausuak azaltzen ziren.

Lehenik, Omako basora joan behar nuen, eta han, nire aitak hiltzean zuen adina markatzen zuen zenbakian gelditu, hau da, 45ean, eta handik ikusten zen zuhaitz multzoa ondo begiratu.

Hurrengo egunean, Omara joan nintzen, eta bertan aitak esandakoa egin nuen. Zuhaitzetan marrazki abstraktuak ikusten ziren eta tristeturik, etxerantz bueltatu nintzen.

Berriz irakurri nituen papertxoak. Bigarrenik, Gernikako arbola ikustera joan behar nuela zioen, eta hango inskripzioa irakurri.

Orduan, Gernikara joan nintzen, aipatutako arbola ikustera. Inskripzioetan, landaketa urtea eta euskal foruei buruzko informazioa zegoen idatzirik. Orduan ideiaren bat otu zitzaidan. Guzti horrek euskararetkin zerikusia izan zezakeela
euskararekin zezakeela
pentsatu nuen.

Berriz ere etxera bueltatzean papertxoak irakurri nituen
3. pausoa Gughemgeinera joatea zen, eta bertan
Picassoren erakusketa bat ikustea.

Gughenheimera joan nintzenean, egun batzuk barru, urduriturik nengoen, ez nekien zer lortuko nuen egun hartan. Ez nekien erantzuenetik
erantzunetik
hurbilago egongo nintzen edo aurkituko nuena, espero nuenaz zeharo ezberdina izango zen.

Erakusketa ikusten nebilela, nire begiak margolan batean gelditu ziren harrapaturik. Picassoren "Guernica" koadroa zen. Berriz ere, euskararen eta euskaldunon askatasuna sinbolizatzen zuen zerbait.
Lehenik Amalso koloreak, ondoren Gernikako arbolan aipatzen ziren foruak, (autogobernua, zerga ordainketa propioa, ...) eta azkenik "Guernica" margolana, euskaldunon askatasuna errebindikatzen.

Orduan, azken egunean, Deustoko unibertsitatera joan nintzen, zehazki liburutegira. Bertan, niretzat ezezaguna zen zerbait bilatzen orduak pasa nituen.
aho
Azkenean, aho bete hortz geratu nintzen, harriturik, zur eta lur. Nire aitaren izenean idatzitako liburuxka bat zegoen.

Atzeko partea irakurri nuen, liburu osoa ez irakurtzearren. Bertan hau jartzen zuen:

Bila ezazu euskararen askatasuna eta ez ahaztu inoiz zer zaren, ez ezazu ezkutatu. Nik bezala, zerbaitengatik, nor zaren ezkutatu behar baduzu ezberdin jantziz edo izen ezberdina jarriz, ez ahaztu: "Ez dugu ikusten ikusten duguna, baizik eta garena!"

Coca-Cola saria
EUSKARAZKO NARRAZIO LABURREN LEHIAKETA

HIZKI NAGUSIEKIN IDATZI, MILA ESKER

Ikaslea Patxi Apraiz Agirre

Ikastetxea Julio Caro Baroja BHI

Herria Getxo Posta-kodea 48993

Lurraldea Bizkaia A

Coca-Cola Iberiak (Compañía de Servicios de Bebidas Refrescantes S.L Calle Ribera de Loira 20-22, 28042 Madrid) zure datuak erabiliko ditu bakarrik idatzizko frogako irabazleak ezagutzeko.Fase Probintzialean sariatuak suertatu ez diren parte hartzaileen datuak zehazten dituzte goiburuak, urte bateko epemugan suntsituko dira. 14 urte edo gehiago baldin badituzu, idatzizko froga honetan parte hartzeak zure datuak erabiltzeko baimena ematen duzula adierazten du. 14 urte baino gutxiago baldin badituzu, zure guraso edo tutoreek eman behar dute baimena konkurtsora aurkezteko bete behar den ahalmenaren bitartez. Sarbide, zuzenketa,ezeztapen edo oposizio eskubideak gauzatu ahal izango dituzu posta arruntez aurrerago zehazten den helbidean edo *notificacion@cocacola.es* posta elektronikoaren bitartez.

265